Espediente-zenbakia: 202232 Harmonizatua
Kontratazioaren xedea: EAEko enpresetan “Gaitasun Digital Profesionalen” sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko Esparru Akordioa.
Dokumentua: preskripzio teknikoen plegua.

1. SARRERA

Euskadiko eraldaketa digitala bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko tresna da "Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia", eta 2021eko martxoaren 30ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bultzatutako plan honek eraldaketa digitalerako eredu berri bat ezartzen duen erronkari lagunduko dio, parte hartzen duten eragile guztien laguntza sinergiko, proaktibo eta koordinatuarekin.

Erakunde guztien egungo eta etorkizuneko hazkundea bultzatzera bideratuta daude teknologia digitalak, eta funtzio, gaitasun multzo eta laneko profil berrien eskaria handitzera. Automatizazioaren gorakadaren aurrean, enpresek haien lan-indarra berregituratu behar dute. Horretarako, profil tradizionalenak gutxitu eta horien ordez profil teknologikoagoak txertatu behar dituzte, edo azpikontratazioa areagotu behar dute lan espezifikoetarako.

Enpresa-ikuspegian oinarrituta, saileko eta erakunde osoko helburu digitalak eskuratzeko langile bakoitzak zer bide jarraitu behar duten neurtzea gomendatzen da. Beharrezkoa da profesionalen maila digitala ezagutu eta kudeatzea, konpetentzietan oinarritutako prestakuntza egokia eta erabilgarria diseinatzeko. Azterketak barne hartu behar ditu ezagutza teknikoak, tresnen erabilera eta ingurune digitalera egokitzeko beharrezko trebetasunak, baita ingurune digitaletako informazioaren kudeaketa, elkarlana, lankidetzarako eta sarean lan egiteko teknologia erabiltzen duten taldeen kudeaketa, ekonomia digitalean murgilduta dauden bezeroen arreta edo zibersegurtasuna ere. Soft konpetentzia horietako batzuek, gaitasun digitalekin lotuta, agerian uzten dute pertsonen gaitasunak gero eta gehiago direla zeharkakoak, multifuntzionalak eta malguak.

Horregatik jarriko dugu martxan "Enpresa arloko Gaitasun Digitalak" laguntza, Euskadiko enpresetan IKANOS metodologia ezartzea bultzatzeko.

SPRIk jardunaldi bat antolatu eta hedatu zuen otsailean, izenburu honekin: ***"Gaitasun Digital Profesionalak laguntza-programaren aurkezpena".*** Gai hauek izan zituzten hizpide jardunaldian:

- "GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK" izeneko dirulaguntza-programaren aurkezpena. Horren helburua da IKANOS metodologiaren bidez pertsonen gaitasun digitalak bultzatzea eta, hala, enpresen lehiakortasuna hobetzea. Edozein tamainatako eta edozein jarduera ekonomikotako enpresak izango dira bezeroak.
- Programaren bezeroak izango diren enpresei zuzendutako aholkularitza-zerbitzua emango duten Giza Baliabideetako eta Gaitasun Digitaleko aholkularitza-enpresekin "Esparru Akordio" bat formalizatzea ahalbidetuko duen Lizitazioaren aurkezpena.

- IKANOS metodologiaren eta ezarpenak egin ditzaten Aholkularien eskura jarriko diren tresnen aurkezpena.

SPRIren webgunean kontsulta daitezke jardunaldiaren edukia eta erabilitako aurkezpenak, ENPRESA DIGITALAren esteka honetan:

https://enpresadigitala.spri.eus/es/presentacion-programa-de-ayudas-competencias-digitales-profesionales-licitacion-para-la-homologacion-de-consultorias-online/

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean SPRIk) prestakuntzan, giza baliabideetan eta/edo gaitasun digitaletan espezializatutako erakundeak, IKANOS metodologiaren bidez, konpetentzia digital profesionalen sistema bat ezartzeko zerbitzuak kontratatu behar ditu.

Lehiaketa publiko honetako esleipendunek eman beharreko zerbitzuak SPRIk deitutako EAEko enpresei zuzendutako GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK laguntza PROGRAMAren barruan hautatutako onuradunei (Enpresak) laguntza ematean oinarrituko dira. Hortaz, laguntza emateko aldeko ebazpenen araberakoak eta aipatutako dirulaguntza-programaren barruan onuradunak laguntza onartzearen araberakoak izango dira zerbitzuaren bolumena eta ezaugarriak. Horrela, SPRIk ez du inolako gastu-konpromisorik hartuko lizitazio honi dagokionez; aitzitik, gastu hori baldintzatuta egongo da, lehenik eta behin, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horretarako argitaratuko den GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK Programaren deialdira, eta, bigarrenik, baldintza-agiri honetan azaldutakoaren arabera, zerbitzu bat benetan eskaintzera, programa horren onuradun den enpresa bati.

Prestakuntzan, giza baliabideetan eta/edo gaitasun digitaletan espezializatutako erakukundeak hautatzea eta Esparru Akordioaren garapena zuzenduko duten preskripzio teknikoak definitzea da plegu honen helburua, baita zerbitzuak emateko kontratuak formalizatzea ere. Kontratu horiek formalizatu ondoren, hautatutako kontratistek IKANOS metodologiari buruzko prestakuntza jasoko dute, laguntza-programaren enpresa onuradunen artean eskatutako zerbitzua emateko

SPRIk eskatuta gauzatuko diren kontratu espezifikoen segida gisa planteatzen da zerbitzu hau.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. 12 hilabeteko irismena izango dute, kontratua formalizatzen den datatik hasita. Nolanahi ere, esparru-akordio honetatik sortutako kontratu espezifikoen hasierako denbora-irismenari dagokionez izan dezaketen beste epe bat ere gehitu ahal izango da. Kontratu horiek Akordioaren iraupen-epearen barruan esleituko dira. Era berean, SPRIk eskatuta, 12 hilabeteko luzapena aurreikusten da.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1. Helburua

Esparru Akordioa gauzatzea eta laguntza-programaren enpresa onuradunei “Gaitasun Digital Profesionalen” sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko SPRIk behar dituen kontratuak formalizatzea.

3.2. Kontratuaren xede diren jarduerak

Enpresetan IKANOS metodologia aplikatzeko gauzatu behar diren zeregin guztiak aginduko zaizkio esleipendunari. Hauek izango dira, gutxi gorabehera:

a- Enpresarekin harremana
- Enpresaren helburuak ezagutzea
- Aukera arloak identifikatzea
- Diagnostikoaren egitura zehaztea

b- Sarbidearen diseinua
- Sailen, profilen, profesionalen kopurua
- Erabiltzaileak identifikatzea
- IKANOS plataformarako sarbidea diseinatzea

c- Komunikazioa erabiltzaileekin
- Helburuak komunikatzea
- Parte hartzeko motibazioa

d- Datuen analisia
- Txosten kuantitatiboak
- Txosten kualitatiboak

e- Hobetzeko proposamena
- Gaitasun Digitalen mapa sortzea
- Diagnostikoan oinarrituta prestakuntza diseinatzea
- Profil digital profesionalaren bilakaera

f- Programa hedatzeko ekintzak

Kontratua gauzatzean, zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan emango direla bermatu beharko da, zerbitzua hizkuntza horietako edozeinetan eman beharko baita, enpresa onuradunak hala eskatuta. Era berean, ekintza guztietan bermatuko du kontratistak hizkuntzaren eta irudien tratamenduaren erabilera ez-sexista. Hori guztia Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hizkuntza-koofizialtasunaren eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistaren betebeharrak betetzea ezinbestekoa eta funtsezkoa da zerbitzua behar bezala emateko. Horrela, bada, kontratua gauzatzeko funtsezko baldintzak dira, eta ez betetzea, hau da, onuradunak hala eskatu ondoren hizkuntza ofizialetako edozeinetan zerbitzurik ez ematea edo adierazitakora egokitzen ez den hizkera eta irudiak erabiltzea, honako hauek egin ahal izango ditu:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari dagokionez ez-betetzea egiaztatzen duen kontratuari dagokion zenbatekoaren % 10erainoko zigorra jasotzea.

- Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, baldin eta kontratistak ezin badu prestazioren bat gauzatu onuradunak eskatutako hizkuntza ofizialean.

4. ZERBITZU HAU EGITEKO ESLEITUTAKO LANGILEEI ESKA DAKIZKIEKEEN BALDINTZAK ETA GAITASUNAK.

Esleipendunek betebehar hauek onartuko dituzte:

Proiektuaren arduradun orokor gisa jardungo duen eta SPRIren ordezkariarekin bozeramaile-lanak egingo dituen pertsona bat izendatu behar da, lan horiek egiteko adinako ezagutza eta esperientzia dituena. Hau da, Prestakuntzan, Giza Baliabideetan eta/edo Gaitasun Digitaletan.

Aurreko atalean deskribatutako lanak egiteko, beharrezkotzat jotzen da konpetentzia digitalen eta giza baliabideen arloan esperientzia duten 2 pertsonako gutxieneko talde bat.
Proposatutako lantaldeko pertsona batek, gutxienez, gai izan beharko du Gaitasun Digital Profesionalak programaren enpresa onuradunei zerbitzua euskaraz emateko, horiek hala eskatzen dutenean. Horrela, proposatutako taldeko kide batek gutxienez C1 mailako euskara jakitea adieraziko da eskaintza teknikoan.

SPRIko Eraldaketa Digitalaren Arloak zuzenean gainbegiratuko ditu proiektuko taldeak egindako lanak.

SPRIk eskatu ahal izango du proiektuan jende gehiago sartzea unean uneko beharren arabera, betiere haien profilak lantaldean proposatutako pertsonen antzekoak badira.

5. IKUSKAPENA ETA ZERBITZUAREN KONTROLA

Egindako lanak SPRIren Eraldaketa Digitaleko sailak ikuskatuko ditu, eta kontratatutako lanen garapen egokia egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak eta informazioa eskatu ahal izango ditu.

6. ESLEIPENDUN HOMOLOGATUEN ARTEAN OINARRITUTAKO KONTRATUAK IZAPIDETZEA.

Lizitazio honek barne hartzen dituen oinarritutako kontratuak laguntza-programaren onuradunak eskabidean hautatutako enpresa kontratistari esleituko zaizkio.

Horri dagokionez, hautatutako kontratista batek ere ezin izango ditu 252.000 eurotik gorako zerbitzuak gauzatu (BEZa barne hartu gabe). Kopuru hori gainditu ondoren, programaren onuradunak beste kontratista bat hautatu beharko du hautatutakoen artetik.

Zerbitzu bat gauzatzeko hautatutako kontratistak ezin izango dio inola ere uko egin zerbitzu hori gauzatzeari, eta SPRIk eskatutako zerbitzu guztiak eman beharko ditu.